



areatza

Abendua 2017 Diciembre 21 zk.

lantzen

Areatzak euskal estatu burujabearen inguruan bozkatu du




■ Azaroaren 25a

■ 2018ko aurrekontua

■ Euskararen Eguna

■ Peatonalizazioa martxan

Telefonoak



Areatzako Udala

946 73 90 10

Parketxea

946 73 92 79

Gorbeialde Elkartea

946 31 55 25

Arratiako Udalen
Mankomunitatea

946 31 17 17

S.O.S Deiak

112

Medikuaren kontsulta

946 00 74 63

Galdakaoko Ospitalea

944 00 70 00

Botika

946 73 93 22

Autobusak

Bizkaibus 902 22 22 65

La Unión 944 27 11 11

CEPSA

Larrialdiak (24 ordu)

902 10 02 24

Bezeroarentzako arreta
(24 ordu) 902 41 64 16

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

944 87 31 87

Iberdrola

944 15 14 11

Indarkeria matxistaren
aurkako telefonoa

900 84 01 11

Udal Sareak

944 87 31 87

areatza
lantzenArgitaratzailea: Areatzako Udala
Lege Gordailua: BI-906-2016
Diseinua IBEGRAFIK
eta maketazioa: www.ibegrafik.eus

Guardiako botikak

Abenduaren 18tik 24ra

Zamalloa Asua, M^a Arantza. Areatza. As-
katasuna kalea, 15. Tel: 94 673 93 22

Abenduaren 25etik 31ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia. J. A. Agi-
rren enparantza, z/g. 94 631 39 50

Urtarrilaren 1etik 7ra

Badiola Uriarte, M^a Nekane. Artea. He-
rriko plaza, 7. Tel: 94 631 73 11

Urtarrilaren 8tik 14ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia. J. A. Agi-
rren enparantza, z/g. 94 631 39 50

Urtarrilaren 15etik 21era

Zamalloa Asua, M^a Arantza. Areatza. As-
katasuna kalea, 15. Tel: 94 673 93 22

Urtarrilaren 22tik 28ra

Arrieta Bereciartua, Naiara. Lemoa. Atu-
txa Salburua, 1. Tel: 94 631 30 18

Urtarrilaren 29tik otsailaren 4ra

Rodríguez Martínez, M^a Purificación.
Igorre. Lehendakari Agirre, 27.
Tel: 94 673 61 09

Otsailaren 5etik 11ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia. J. A. Agi-
rren enparantza, z/g. 94 631 39 50

Otsailaren 12tik 18ra

Badiola Uriarte, M^a Nekane. Artea. He-
rriko plaza, 7. Tel: 94 631 73 11

Otsailaren 19tik 25era

Arrieta Bereciartua, Naiara. Lemoa. Atu-
txa Salburua, 1. Tel: 94 631 30 18

Urte osoan 22:00etatik 09:00etara

Gometza Onaindia, Ana.
Francisco Cortabarria, 2. Basauri.
Tel: 944 49 05 87

Autobus ordutegiak

Bizkaibus

Zeanuri-Lemoa-Galdakaoko ospitalea-Bilbo

Lanegunetan/Laborables:

(lehenengoa/inicio) 05:00etan

(ordu erdiro/cada media hora) 05:15etik 06:45era

(orduro/cada hora) 06:45etik 21:45era

Larunbatetan/Sábados:

(lehenengoa/inicio) 05:00etan

(orduro/cada hora) 05:45etik 21:45era

Jaiegunetan/Festivos (orduro/cada hora) 07:45etik 21:45era

Bilbo-Galdakaoko ospitalea- Zeanuri

Egunero/Diario (orduro/cada hora) 06:15etik 22:15era

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

*(Ubidetik irteerak/Salidas desde Ubide)

Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados

(bi orduro/cada dos horas) 06:45etik 20:45era

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) 08:45etik 20:45era

*(Otxandiotik irteerak/Salidas desde Otxandio)

Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados

(orduro/cada hora) 06:55etik 20:55era

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) 08:55etik 20:55era

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Egunero/Diario 06:45etik 20:45era

*Otxandiora/a Otxandio (orduro/cada hora)

*Ubidera/a Ubide (orduro/cada dos horas)

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables 07:00etan eta orduro 08:15etik 21:15era

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos (ez dabil/no circula)

Bilbo- Lemoa- Zeanuri (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables (orduro/cada hora) 07:00etatik 21:00etara

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos (ez dabil/no circula)

PLAZAKO ALDAPAKO
OBRA BUKATU DA

Azaroan zehar zenbait obra egin dira Areatzan, eta, besteak beste, plazako aldapan oinezkoen gunea indartzeko pasabidea bukatu da dagoeneko. Horrela, Askatasun kaletik Goikokale zein Gudarien Plazara oinez iristeko bidea bereizita dago eta oinezkoei presentzia handiagoa ematen zaie.

Obra Lasuen enpresak egin du eta 34.723,91 euroko kostua izan du. Lanak egiterakoan zenbait eragozpen sortu ziren zirkulazioan, eta Udalak ez zuen denborarik izan garaiz ohartarazteko; hortaz, Udalak barkamena eskatu nahi die herritarrei.

YA ESTÁ TERMINADA LA
OBRA DE LA RAMPA DE
LA PLAZA

En noviembre se han realizado varias obras en Areatza, y, entre otras, se ha terminado la pasarela de los/as peatones de la rampa de la plaza. Así, se ha separado el acceso para los/as viandantes desde la calle Askatasun hasta Goikokale o Gudarien Plaza.

La empresa encargada de la obra ha sido Lasuen, y ha tenido un coste de 34.723,91 euros. La obra produjo algunas molestias para el tráfico, y el ayuntamiento no tuvo tiempo de avisar con antelación, por lo que quiere pedir disculpas a los/as vecinos/as.

KOLUNPIO ETA JOKO BERRIAK
JARRI DIRA PARKEAN

Hiru asteko lanen ondoren, azaroaren 17an Pedro Antonio Añibarro Parkea berriz ere erabilgarri jarri zen haurrek kolunpio eta joko berriekin gozatzeko.

Alde batetik, Askatasun kalearen 23. zenbakiaren aurrean zeuden kolunpioak lekuz aldatu dira eta Pedro Antonio Añibarro Parkean jarri dira. Beste alde batetik, ekipamendu eta joko berriak erosi dira, besteak beste, xake mahai bat, futbolina eta ping-pong mahaia. Horrez gain, kabia izeneko zabu bat jarri da.

Nabarmendu behar da alde zurretik Udalak haurrekin zenbait lansaio egin zituela nolako kolunpioak nahi dituzten zehaztu eta definitzeko. Parkea berriz ere erabilgarri jarri ondoren azpimarratu behar da haurren harrera oso ona izan dela eta haurrek pozik hartu dutela Udalak egindako lanen emaitza.

Lan hauen kostua 20.980,24 eurokoa izan da eta Murbhidecor enpresa arduratu da.

SE HAN COLOCADO NUEVOS
COLUMPIOS Y JUEGOS EN EL
PARQUE

Después de tres semanas, el 17 de noviembre se puso a disposición de los/las niños/as el Parque Pedro Antonio Añibarro dotado con nuevos columpios y juegos.

Por un lado, los columpios que estaban frente al número 23 de la calle Askatasun se han movido al parque; y por otro, se han instalado nuevos juegos: una mesa de ajedrez, un fútbolín y una mesa de ping-pong, entre otros. También se ha colocado un columpio de tipo nido.

El ayuntamiento se reunió con los/as menores para conocer qué tipo de juegos querían instalar en el parque. Después de la reapertura del parque, los/as niños/as se han mostrado muy satisfechos/as con los cambios realizados.

La obra ha tenido un coste de 20.980,24 euros, y lo ha realizado la empresa Murbhidecor.



JUBILATUEN ETXeko OBRAK LASTER HASIKO DIRA

Areatzako Udalak zenbait aldaketa egin nahi izan ditu Jubilatuen Etxean, eta horretarako proiektua idatzi eta kontratua lehiaketara atera ostean, laster hasiko dira lanak.

Hala, Jubilatuen Etxeak espazio handiagoa izango du, orain arte posta bulegoa zen espazioa ere hartuko duelako. Posta bulegoa, horrenbestez, beste leku batean instalatuko da. Horrez gain, Jubilatuen Etxeko antolaketa aldatu egingo da, gela berri bat sortuko da eta komunak ere egokitu egingo dira, eta bertan dutxatzeko aukera ere egongo da. Izan ere, Areatzako Udalaren ustez funtsezkoa eta ezinbestekoa da nagusiek ondo egokituta eta eguneratuta dauden instalazioak erabili ahal izatea.

Lanak egiten diren bitartean Udalak beste espazio bat egokituko du, Uparan Jubilatuen Elkarte-kideek erabil dezaten lanak amaitu arte. Lanek 93.036.80 euroko kostua dute eta Eusko Jaurlaritzaren %33ko diru laguntza baten bitartez finantzatu dira. Datozen egunetan esleituko da obra hau.

PRONTO COMENZARÁN LAS OBRAS DEL HOGAR DE JUBILADOS/AS

El Ayuntamiento ha querido realizar algunos cambios en el Hogar de Jubilados/as, por lo que, tras redactar el proyecto y sacarlo a concurso, próximamente comenzarán las obras para ello.

Así, el Hogar de Jubilados/as tendrá más espacio, ya que tras realizar la obra, el local abarcará también la oficina de Correos, por lo que, la oficina de Correos se trasladará a otro lugar. Además, la organización del Hogar de Jubilados/as se modificará, se creará una estancia nueva y se adaptarán los baños, que incluirá también una ducha. Y, es que, bajo el punto de vista del Ayuntamiento, es fundamental que este colectivo pueda hacer uso de unas instalaciones apropiadas y adaptadas.

Mientras se realizan las citadas obras, el Ayuntamiento habilitará otro espacio para que lo utilicen los/as socios/as de la Asociación. Las obras tendrán un coste 93.036.80 euros, que el Gobierno Vasco financiará en un 33%.

ESKOLA AURREKO APARKALEKUA KONPONDUTA ETA ERABILGARRI DAGO DAGOENEKO

Eskola aurrean zegoen aparkalekua oso egoera kaxkarrean zegoen orain arte, lupetza, ura eta bestelakoak sortzen zirelako. Izan ere, inguru horretan ibilgailu ugari aparkatzen dira eta, horren ondorioz, erabiltzearen poderioz ingurua nahiko kaltetuta zegoen.

Horrenbestez, Udalak konpondu egin du eta dagoeneko prest eta erabilgarri dago. Hala, lurraren osaera aldatu egin da eta beste material batzuk aplikatu dira, iraunkorrakoak eta hobeto funtzionatzen dutenak.

Horrez gain, autoak aparkatzeko antolamendua ere aldatu da, eta ertz batean autoak beste era batera aparkatu behar dira orain, lurrean margotutako markek erakusten duten gisan, alegia.

Obra honen kostua 15.410,91 eurokoa izan da.

EL APARCAMIENTO QUE SE ENCUENTRA FRENTE A LA ESCUELA ESTÁ YA REPARADO Y DISPONIBLE

El aparcamiento que se encuentra frente a la escuela se encontraba en una situación deficiente, ya que se originaba mucha agua y barro. Dicho aparcamiento daba servicio a multitud de vehículos, por lo que, con el uso, la situación se había agravado.

Por tanto, el Ayuntamiento lo ha reparado y ya está de nuevo disponible. Se ha cambiado el pavimento y se han aplicado materiales más resistentes. También se ha modificado la organización de los vehículos, como puede apreciarse gracias a las marcas de estacionamiento.

Esta obra ha tenido un coste de 15.410,91 euros.



GOIKOKALEKO ETXEBIZITZETAN SUKALDEAK JARRIKO DIRA ALOKAIUAN JARTZEKO

Areatzako Udalaren mende dagoen Areatza 1338 SL sozietateak lau etxebizitza ditu Goikokale 14-16 eraikinean. Hiru etxebizitza daude hutsik une honetan eraikin horretan, bi behealdean eta hirugarren etxebizitza lehen solairuan. Helburua etxebizitza horiek saltzea zen, baina saltzen ez direla ikusita, eta hutsik izatea alferrik galtzea dela iritzi, Areatzako Udalak alokairuan jartzeko ekipatzea erabaki du. Horrela, Udalaren mendeko sozietateak dituen etxebizitzak hutsik egotea saihestu nahi da, eta etxebizitzak erabiltzea sustatu nahi da.

Hau da, etxebizitzetan gutxieneko ekipamendua jarriko du Udalak, ondoren alokairuan jartzeko.

Ekipamendu hori sukaldea jartzean eta zenbait konponketa egitean datza. Laster, Udalak ordenantza bat aterako du alokairu soziala bultzatzeko, batez ere gazteei zuzenduta.

LAS VIVIENDAS DE GOIKOKALE SE EQUIPARÁN, PARA SU POSTERIOR ALQUILER

Areatza 1338 SL, la sociedad perteneciente al Ayuntamiento de Areatza, dispone de cuatro viviendas en el edificio 14-16 de Goikokale. En este momento existen tres viviendas vacías, dos en el bajo y una tercera en el primer piso. Considerando que en un amplio espacio de tiempo las viviendas no se han vendido, el ayuntamiento ha optado por equiparlas con cocina para su posterior alquiler. Así, se quiere evitar que las viviendas estén vacías promocionando su utilización sobre todo entre los/as jóvenes. El Ayuntamiento de Areatza va a regular el alquiler social mediante una ordenanza que publicará en breve.



ARGIA PIZTEKO SISTEMA BERRIA JARRIKO DA FRONTOIAN

Azken hilabeteetan zenbait gorabehera egon dira frontoiko argiztapenarekin, eta tarteka arazo batzuk ere sortu dira. Horregatik, Udalak argia automatikoki pizteko jarrita zegoen txanpon sistema kentzea erabaki du, eta, horren ordez, giltza bidezko sistema kontrolatua ezarriko da.

Sistema berri horretan, argia pizteko beharrezkoa izango da giltza bat edukitzea. Giltza lortzeko udaletxetik pasatu beharko da, eta 15 euroko fidantza ipini beharko da; giltza bueltatzerakoan kopuru hori berreskuratu egingo da; horrez gain, udaletxean kontu zenbaki bat ere eman beharko da. Hala, giltza erabiltzean ordubete eta erdiko tartean argia edukiko dugu pilotalekuan, bost euroren truke. Ondoren, hilabete amaieran, Udalak likidazioa egingo du eta, giltzen erabileraren arabera, erabiltzaile bakoitzari dagokiona kasuan kasuko kontu korrontetik kobratuko du.

Sistema berria aplikatuko dela aprobetxatuz, frontoiko ateen giltzak ere aldatu egingo dira, sistema kontrolatua jarritz. Esku Pelota Taldeak eta Udaleko langileek bakarrik izango dute bertara sartzeko aukera. Aldaketa guzti hauen kostua 2.529,60 eurokoa da.

Gogoratu behar da, bidenabar, asteburuetan argiak 18:30etik 21:00etara piztuta jarraituko duela dohainik, nahiz eta intentsitate txikiagoa izan.

SE INSTALARÁ UN NUEVO SISTEMA DE ILUMINACIÓN EN EL FRONTÓN

Durante los últimos meses se han detectado algunos problemas en el sistema de iluminación del frontón, por lo que el Ayuntamiento ha decidido cambiar dicho sistema por uno nuevo que funcionará a partir de ahora a través de unas determinadas llaves.

Para poder acceder a este nuevo sistema, por tanto, los/as usuarios/as deberán acudir al Ayuntamiento y abonar una fianza de 15 euros para adquirir una llave, fianza que se recuperará al devolver la llave. Además, también será necesario dejar un número de cuenta. Así, al acceder al frontón con dicha llave, los/as usuarios/as podrán disfrutar de una hora y media de luz, a cambio de un monto de 5 euros, que a final de mes se descontará de la citada cuenta corriente.

Por otro lado, también se han cambiado las llaves de las puertas del frontón, para mantener un control más exhaustivo. Es necesario recordar que durante los fines de semana la luz permanecerá encendida de 18:30 a 21:00 de manera gratuita, y que estas nuevas medidas han costado 2.529,60 euros.

PEATONALIZAZIOA GABONETAN SARTUKO DA INDARREAN

Areatzak Udalak hainbat hilabete daramatza peatonalizazio proiektua lantzen; izan ere, azken urteetan Alde Zaharrean edonola aparkatzeko joera zabaldu egin da, eta autoak nonahi aparkatuta ikus zitezkeen, askotan garajeen jabeek traba eginez. Horrez gain, bereziki arratsaldeetan egoerak okerrera egin izan du, plaza inguruan haur eta gazte asko ibiltzen delako egoera zaildu egiten delako.

Hala, proiektuaren hasierako faseetan proposamena herritarren aurrean aurkeztu zen, eta herritar zein eragile ugariren iradokizun eta ekarpenak jasotzeari ekin zion Udalak. Tarte horretan, aurkezpenari buruzko panelak udaletxearen behealdean ere jarri ziren, jendea informatzeko.

Ondoren, sentsibilizazio fasea etorri da. Horrela, dokumentazioa eta informazioa etxeetan banatu da, eta, horrez gain, horretarako kontratatutako bi pertsona kalean lanean ari dira sentsibilizazio eta informazio lanetan. Bidean, kalean egin beharreko moldaketak ere egin dira, zenbait kartel berri jarri dira eta aparkatzeko leku berriak margotu dira.

Zer eragingo du peatonalizazioak?

Orain, bada, peatonalizazioa indarrean sartuko da. Hala, Gabonetan, plazako zirkulazioa itxi egingo da eguerdiko 14:00etatik hurrengo eguneko 08:00ak arte. Horrez gain, seinalizatutako lekuetan baino ezingo da aparkatu.

Hala ere, herriko saltoki eta komertzioetan erosketak egitera etorri nahi duenak horretarako berariaz markatutako lekuak izango ditu aparkatzeko. Horrela, herritarrek zein kanpotik datozenek Areatzara erosketak egitera etortzen jarraitzea lortu nahi da, autoa behar bezala eta horretarako seinalizatutako lekuetan utziz.

Sistema berri honek ez du eraginik izango anbulantzien edo suhiltzaileen ibilgailuen kasuan; izan ere, Alde Zaharrera sartzeko piletan giltza unibertsala erabiliko da, eta, horrela, larrialdiren bat gertatuz gero laguntza zerbitzuen sarbidea bermatuta egongo da.

Aipatutako langileak bizpahiru hilabetez arituko dira informazio guztia ematen eta aparkaleku eta zamalantarako gune berriak non dauden erakusten. Hala ere, herritarrek edozein zalantza, arazo edo kontsulta argitu nahi izanez gero, udal bulegoan, langileengandik eta areatza.partehartzea@gmail.com helbide elektronikoa ere laguntza aurkituko dute.

Konpromisoa eta emaitzak

Argi dago, hala ere, sistema eraginkorra izan dadin herritarrek ere horretarako konpromisoa hartu behar dutela eta herritarren inplikaziorik gabe nekez lortuko dugula Alde Zahar lasai, antolatuta eta osasungarriagoa eratzeko. Horrenbestez, Areatzak Udalak herritarrei gogorarazi nahi die gure herri barruan mugitzeko distantziak laburrak direla, autoa joan-etorri luzeagoetarako uzteko eskatu nahi die eta oinez ibiltzera animatu nahi ditu.

LA PEATONALIZACIÓN SE APLICARÁ EN EL CASCO HISTÓRICO A PARTIR DEL PERIODO NAVIDEÑO

Durante los últimos años se han modificado las tendencias de aparcamiento en el casco histórico de Areatza, y se ha venido estacionando sin control hasta el punto de incluso obstaculizar la normal circulación. La situación se agrava por las tardes, ya que la plaza ha sido tradicionalmente un lugar natural de juegos para niños/as.

Es por ello que el Ayuntamiento de Areatza lleva ya varios meses desarrollando el proyecto de peatonalización. Durante la primera fase se presentó ante la ciudadanía la propuesta del Ayuntamiento, y se recabaron impresiones y aportaciones tanto de los/as vecinos/as como de los agentes sociales. También se instalaron varios paneles en el consistorio, para informar del proyecto.

Después se ha realizado una campaña de sensibilización, repartiendo la información y documentación por los hogares. Además, dos personas contratadas para ello realizarán tareas de sensibilización a pie de calle. También se han aplicado las medidas necesarias, colocando carteles nuevos y adaptando las nuevas zonas de estacionamiento.

¿Qué implicará la peatonalización?

En Navidades entrarán en vigor las medidas de peatonalización, por lo que la circulación de la plaza se cerrará a partir de las 14:00 hasta las 08:00 de la mañana del día siguiente. Además, solamente podrá estacionarse en los lugares señalizados para ello. Aun así, aquellas personas que quieran acercarse a realizar sus compras en coche podrán seguir haciéndolo, aparcando en los lugares señalizados para ello.

Este nuevo sistema no interferirá en el acceso de ambulancias o bomberos/as, ya que se establecerá un sistema de llave universal para acceder al casco histórico. De esta manera se garantiza la atención en caso de emergencia.

El personal contratado realizará tareas de información y sensibilización durante un periodo de dos o tres meses. Si cualquier vecino/a quisiera aclarar alguna duda o realizar una consulta, puede dirigirse al Ayuntamiento o escribir al correo areatza.partehartzea@gmail.com.

Compromiso y resultados

Para que el sistema sea efectivo es necesario que la ciudadanía se comprometa, ya que sin la implicación de la sociedad difícilmente podrá llevarse a cabo con éxito. Por eso, el Ayuntamiento de Areatza quiere recordar a toda la ciudadanía que dentro de nuestro municipio las distancias son muy pequeñas, por lo que les incita a utilizar el vehículo solamente en trayectos más largos, y les anima a que se muevan a pie dentro de la municipio.



MUDEJAR ETXEAN ZENBAIT OBRA EGINGO DIRA

Datozen asteetan zenbait obra egingo dira Errukiñe kalean dagoen Mudejar Etxean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuarekin elkarlanean. Obrak bi fasetan egingo dira; lehen fasean, 3 metrotik behera dagoen fatxada desmuntatu eta apuntalatu egingo da. Eraikinaren behealdea desmuntatu ostean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuko adituek bertan egon zitezkeen elementu arkitektonikoen azterketa egingo dute. Bigarren fasea berreraiketa fasea izango da, XVI. mendean egon zen eraikinaren kopiarik fida-garriena berreraikitzeke.

Kontuan hartu behar da Mudejar Etxeak dituen elementu arkitektoniko bereziak Euskal Herriko beste hiru etxetan baino ez direla aurkitu: Donibane Garazin, Gasteizen eta Seguran. Horregatik, etxe honek Aldundiko Ondare Zerbitzuaren babes berezia dauka eta egin beharreko lanak Aldundiko Ondare Zerbitzuaren gidaritzapean egin behar dira, .

Lehen fase honetan egingo diren obren kostua da 27.099,16 eurokoa da (22.396 euro + BEZa) eta Baserrigintza enpresak egingo ditu.

SE REALIZARÁN VARIAS OBRAS EN LA CASA MUDEJAR

En las próximas semanas se realizarán varias obras en la Casa Mudéjar, localizada en la calle Errukiñe. Las obras se realizarán en coordinación con el Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia, y tendrá dos fases distintas: en la primera fase se desmontará y se apuntalará la fachada inferior a 3 metros. Después, el personal técnico del Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia realizará una investigación sobre los elementos arquitectónicos especiales que puedan encontrarse en esa parte de la casa. En la segunda fase se acometerán las tareas de reconstrucción.

Es necesario resaltar que la Casa Mudéjar presenta características arquitectónicas que solamente se encuentran en otras tres edificaciones en Euskal Herria, concretamente en Donibane Garazi, Vitoria y Segura. Es por ello que estas obras deben realizarse bajo la supervisión del Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia.

La empresa Baserrigintza se encargará de las obras de la primera fase, y tendrá un coste de 27.099,16 euros (22.396 euros + IVA).



PEDRO ANTONIO AÑIBARRO PARKEKO ARGIZTAPENA ALDATUKO DA

Aurreko urteetan energia efizientzia lortzeko bidean emandako urratsekin jarraituz, datozen asteetan Pedro Antonio Añibarro Parkeko argiztapena aldatu egingo da. Aldaketa honi esker parkeko argiztapena asko hobetuko da eta, aldi berean, LED sistemaren instalazioaren bidez, energiaren kontsumoan aurreztea ekarriko du; hala, horrek ekonomiari dagokionez ere aurreztea ekarriko du.

Obra horien barruan, parkean dauden mota desberdineko 25 luminariak aldatu egingo dira, eta euskarri zuri originala mantenduko da. Lanek astebete iraungo dute, Tecuni enpresak egingo ditu eta kostua 21.636 eurokoa da.

Beste alde batetik, Siar ingenieria enpresa kale argiztapenaren auditoria luminikoa egiten ari da eta urte amaieran bukatuko du. Azterketa honen bidez, Areatzako argi puntu eta argien kontrol gune guztiak aztertu egin dira. Areatzako Udalak, auditoria honen bidez, datozen urteetan, argiztapen aldetik herri jasangarri bat lortzeko eman beharreko pausuak diseinatuko ditu. Auditoriaren kostua 5.566 eurokoa da.

SE MODIFICARÁ LA ILUMINACIÓN DEL PARQUE PEDRO ANTONIO AÑIBARRO

Después de progresar en la eficiencia energética en los últimos años, en las próximas semanas se cambiará la iluminación del Parque Pedro Antonio Añibarro. Gracias a esa modificación, la iluminación del parque mejorará notablemente, y, a su vez, gracias a la instalación del sistema LED, se ahorrará tanto en el consumo de energía, como económicamente.

Dentro de esas obras se cambiarán las 25 luminarias del parque; será la empresa Tecuni quien realice las citadas tareas, y el precio de la obra será de 21.636 euros.

Por otro lado, la auditoría lumínica que está realizando Siar ingeniería se completará a finales de año, y gracias a esta auditoría se analizarán todos los puntos de luz y zonas de control del municipio. La auditoría ha tenido un coste de 5.566 euros.

UPARAN JUBILATUEN ELKARTEAK URTEROKO BAZKARIA EGIN DU AURTEN ERE

Ohi bezala, abenduan bazkideen bazkaria egin du Uparan Jubilatuen Elkarteak, Areatzako Hotel Bainuetxean. Aurretik, ohi bezala, dagoeneko gure artean ez dauden bazkideen omenezko meza ospatu zuten.

Oraingo honetan 100 lagun inguru batu ziren bazkaltzeko, eta bapo jan ondoren, 1933. urtean jaiotako bazkideak omendu zituzten, hain zuzen ere, M^a Jesús Arteaga, Andoni Astondoa eta Domingo Petralanda, Txomin. M^a Jesús Arteagaren ordezkari bere ahizpa Cristinak jaso zuen oparia, eta Andoni Astondoaren ordezkari berriz, emazte Maribel Gorostizagoizak. Bazkaldu eta gero dantza egiteko aukera ere izan zuten.

Elkarteak plaka bana eman zien omenduei, eta Udalak, berriz, opari bana eman zien elkarteko kideei.

LA ASOCIACIÓN UPARAN DE JUBILADOS/AS HA CELEBRADO SU TRADICIONAL COMIDA

La Asociación Uparan de Jubilados/as de Areatza celebró recientemente su tradicional comida en el Hotel Balneario de Areatza. Primeramente, se celebró también una misa en honor a los/as socios/as que han fallecido.

Esta vez se reunieron cerca de 100 socios/as para comer, y durante la sobremesa se homenajeó a los/as socios/as nacidos/as en el año 1933, concretamente, M^a Jesús Arteaga, Andoni Astondoa eta Domingo Petralanda, Txomin. En lugar de M^a Jesús Arteaga recogió el obsequio su hermana Cristina, y en lugar de Andoni Astondoa lo hizo su esposa Maribel Gorostizagoiza. Después de comer también se organizó una sesión de música en el mismo hotel.

La asociación otorgó una placa a cada homenajeado/a, mientras que el ayuntamiento entregó un pequeño obsequio a cada socio/a.

AURTEN ERE GARAPENERAKO LANKIDETZA LAGUNTZAK MARTXAN JARRI DITU UdalaK

Areatzako Udalak, bere helburu, printzipio eta programaren barruan, izaera solidarioa daukaten politikak garatu nahi ditu, beste herri batzuekin elkartzarekin jokatzu eta, ahal den neurrian, lagunduz. Horretarako, aurreko urteetan bezala, aurrekontuaren zati txiki bat garapenerako lankidetzak proiektu batera bideratzen du, munduko beste txoko batzuetan beste herri batzuei laguntzeko. Aurten, kopurua 3.000 eurokoa da.

Lan horretan, aurten sistema apur bat aldatu da, eta Areatzako Udalaren jarduna gidatzen duten printzipioekin lerrokatutako lana laguntzea erabaki da. Areatzako Udalaren politikak garatzen dituzten printzipio edo ardatz nagusien artean, aurten feminismoarena hautatu da, eta, hala, beste herrialde batzuetan feminismoa edota genero ikuspegia lantzen duten eta emakumeak laguntzen dituzten proiektuak hautatu dira.

Aurkeztu diren proposamenak Palestina, Guatemala eta Nikaraguan daude kokatuta, eta Bakerako Lankidetzak Batzarra, Alboan eta AMS Mundo Solidarioa Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek aurkeztu dituzte, hurrenez hurren.

Hiru proposamenen laburpenak Udalaren webgunean argitaratu dira eta herritarrek bozkatzeko aukera izango dute. Herritar bakoitzak soilik behin bozkatu ahal du, eta egiaztatu egingo da boto emaileak Areatzan erroldatuta daudela. Hiru proposamenak Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen daude bilduta.

UN AÑO MÁS, EL AYUNTAMIENTO HA DESTINADO UNA PARTIDA PARA LA COOPERACIÓN

Al igual que el año pasado, el Ayuntamiento de Areatza ha reservado una partida económica para destinarla a un proyecto de cooperación al desarrollo. Se trata de una cuantía de 3.000 euros, y como novedad, este año se ha decidido destinar dicha ayuda a programas afines a los principios del gobierno municipal. Uno de esos principios por el que se guía el ayuntamiento corresponde a la perspectiva de género o igualdad, y por ende, se han elegido tres proyectos que pretenden impulsar dicho principio en otros lugares.

Las propuestas las han presentado la Asamblea de Cooperación por la Paz, Alboan y la ONG Mundo Solidario, y están ubicadas en Palestina, Guatemala y Nicaragua, respectivamente.

Este año volverán a ser los/as vecinos/as de Areatza quienes elijan a qué proyecto se destinará la ayuda. Podrán dar su voto a través de la página web del ayuntamiento, donde también encontrarán sendos resúmenes de las propuestas mencionadas.


HERRITARREN IDEIEKIN OSATU NAHI DITU UdalaK AURREKONTUAK, BESTE BEHIN ERE

Aurten ere herritarren proposamenak kontuan hartuko ditu Udalak aurrekontuak diseinatzerakoan. Hirugarren urtez ipini da martxan ekimena, eta areatarrek herrian zehar ipinitako buzoietara edo udaleko emailera proposamenak bidertzeko aukera izan dute. Parte-hartzea herritar guztiei zabalik egon arren, aurten, batez ere, 12-18 urte bitarteko gazte-txoen iritziak batu nahi izan ditu Udalak.

Izan ere, aurreko urte bietan egin diren herri batzarretan 30-65 urte bitarteko herritarrek hartu izan dute parte, eta hortik kanpoko jendearen iritzia ere batzea izan da iaz eta aurten Udalaren helburuetako bat. 2017ko aurrekontuetan eskolako ikasleen iritzia batu zuen Udalak, baita horietan batutako ideiekin lotutako proiektu batzuk martxan ipini ere. 2018ko aurrekontuetarako, esan bezala, 12 urtetik 18 urtera artekoen proposamenak jasotzen dabil Udala; horretarako, Gaztelekuan elkartu ziren gazteak udal ordezkariekin, eta aurrekontu bat zer den azaltzeaz gain, nolako Areatza nahi duten esateko aukera eduki zuten. Horrez gain, adin tarte horretako gazte guztiei gutuna bidali zien Udalak, udaletxean egin zen batzarrerako gonbidapenarekin.

Udalarentzat oso garrantzitsua da herritarrek entzutea aurrekontuak egiterako garaian, eta eskerrak eman nahi dizkie proposamenak egin dituzten guztiei. Horietako bat Euskera Batzordetik etorri da, euskara ikasteko diru laguntza handitzea, hain zuzen ere. Udalak kontuan hartu du hori datorren urteko aurrekontuak egiterakoan, eta aurrerantzean, matrikularen %100 ordainduko du (orain arte %85 ordaintzen zuten).

Aurtengo eta aurreko urteetako ideia guztiak hartu eta datorren urtean egin daitezkeenak zerrendatzea eta antolatzea dagokio orain Udalari. Aurrekontua prestatutakoan, urtero legez, batzar bat deituko du Udalak dena azaltzeko.



2015-2017 aurrekontuen batzbesteko datuak Datos medios de los presupuestos del periodo 2015-2017

EL AYUNTAMIENTO TENDRÁ EN CUENTA LA OPINIÓN CIUDADANA PARA DISEÑAR LOS PRESUPUESTOS

Un año más, el ayuntamiento va a tener muy en cuenta las ideas de los/as ciudadanos/as a la hora de diseñar los presupuestos. Para ello, los/as vecinos/as han tenido la oportunidad de hacer llegar sus propuestas mediante los buzones que se colocaron por el pueblo y por correo electrónico.

Este año, además, el consistorio ha querido hacer especial hincapié en la participación de los/as jóvenes de entre 12 y 18 años. Para ello, los/as representantes municipales se reunieron en el Gazteleku con los/as jóvenes para explicarles qué es un presupuesto y para escuchar sus necesidades; además, todos los/as jóvenes de Areatza pertenecientes a esa franja de edad recibieron una carta con la invitación para asistir a la reunión que se celebró en el ayuntamiento.

Para el Ayuntamiento de Areatza es de vital importancia escuchar a sus vecinos/as. Así, una de las propuestas ha venido de la Comisión de Euskera: ha pedido que la subvención de los cursos para aprender euskera sea del 100% (hasta ahora era del 85%). El consistorio lo va a tener en cuenta en los presupuestos de 2018.

Ahora le toca al gobierno municipal organizar todas las proposiciones recibidas, y una vez detallado el presupuesto para el año que viene, convocará una reunión donde se dará cuenta del presupuesto.





“TXISTUA JOTZEN DUGU HERRIAN MUSIKARIK EZ DADIN FALTA, BAINA BAITA GUGATIK ERE”

Areatzako hainbat ekitalditan musika jartzeaz arduratzen da Txistulari Taldea, tartean, jaietan. Aurtengo festetan, gainera, beraiena izan da txupinazoa botatzearen ardura, eta “oso hunkituta” egin dute zeregin hori. Emakumeak dira taldeko partaide guztiak. Gu haietako batzuekin elkartu gara, kontu-kontari.

Zenbat pertsonok osatzen duzue taldea?

Ba momentu honetan bederatzi lagunek osatzen dugu. Sasoi batean pila bat izan ginen, baina orain ekitaldietan jotzen dugunok bederatzi gara, nahiz eta den-denok gutxitan elkartzen garen.

Herriko hainbat ekitaldi girotzen dituzue.

Bai. Jaietan, Santi Kurutze egunean, Olentzero etortzen denean, Euskara Egunean... Ekitaldi ezberdinetarako deitzen digute, eta normalean prest egoten gara jotzeko. Jaietan, gainera, txupinazoa bota ostean kalejiran jotzen dugu, urtero.

Dena borondatez?

Bai, normalean dena izaten da borondatezkoa. Udalak opatzen digu afaria, baina ez dugu aprobetxatzen [barrez]. Gehien bat egiten dugu herriari ekarpena egiteko, musikarik ez dadin falta, baina baita gugatik ere. Txistua eskegita uztea pena izango litzateke; noizean behin kalean jotzeak oraindik txistulariak garela sentitzeko ere balio digu. Gure espazio moduan sentitzen dugu, gainera elkartu egiten gara eta polita izaten da. Lehen domeketan jotzeagatik Udalak dirua ematen zigun, eta geure artean banatzen genuen.

Kontaguzue domeketakoa.

Bai, Areatzan ohitura bat zegoen domekero 09:30ean txistua jotzeko kalerik kale. Leonardo Zuloaga eta Ramon Orue hasi ziren horrekin, diktadura garaian izango zen, euskal kantak kalean kantatzea eta jotzea debekatuta zegoen sasoiaren. Areatzako hainbat neskatilak txistua jotzen ikasi genuen Arratiako Musika Eskolan, denok ginen adinez antzekoak, urte bat edo biren aldea geneukan. Domeketan jotzeko gonbitea egin ziguten, eta han hasi ginen. Gero gizon haiek utzi egin zuten eta geuk neskok jarraitu genuen domekero jotzen, orain dela sei urte ingurura arte.

Urte pilo batean orduan...

Bai, pentsa, 9-10 urterekin hasi eta orain dela gutxira arte. Umetan hasi eta nerabezaro eta gaztaroan ere jarraitu genuen, askotan biharamunarekin eta beste askotan gaupasarekin. 300 pezeta kobratzen genituen domekako. Gero umeak edukitzen

hasi ginenean domeketakoa bertan behera utzi genuen. Utzi aurretik, azken aldian, dirua kobratu beharrean gorde egin genuen bidaia bat egiteko helburuz. Azkenean, Mexikora joan ginen taldekide batzuk.

Ondo pasatzen zenutela antzematen da.

Koadrila ezberdinetakoak gara baina beste koadrila bat osatu dugu txistu taldean. Hainbat irteera egin izan ditugu elkarrekin. Adibidez, 16-18 urte genituenean, Areatzako neska bat Fuengirolan (Malaga) bizi zen, eta bertan turismo azoka bat ospatu zen, eta postuetako bat Euskal Herrikoa zen. Deitu zigun, ea standera joango ginen txistua jotzera. Arduradun bat ere eraman genuen, batzuk adinez txikiak zirelako. Gauean etxean uzten gintuztenean kalera irteten ginen ondo pasatzen. Bost urtean joan ginen hara; asteburuan azokan egotearen ez ziguten ordaintzen, baina apartamentu bat uzten ziguten asteburutik aparte beste lauzpabost egunean egoteko. Oporrak pasatzen genituen. Horrez gain, Arratiako Musika Eskolatik Frantziara ere joan ginen, baita Kataluniara ere. Horrez gain, gogoan ditugu bertan inguruko ekitaldi ugari: Lemoara San Inazio jaietan joaten ginenekoa, han bai ondo ordaintzen zigutelak; Zornotzan ospatu zen txistularien topaketako oroitzen onak ditugu; baita Bilboko Korrikaren amaierako jai batean jo ginenekoa ere, ze ondo pasatu genuen!

Herriko edo inguruko beste musika taldeekin nolako harremana duzue? Beraiekin batera jotzen duzue?

Jaietan Eskean Kristö taldeko gitarrekin eta Areatzako banda-ko metalekin zerbait berezia egiten dugu: Gatiburen abestiak, Barricadarenak, EH Sukarrarenak... Txupinazo egunean izaten da kontzertu berezi hori, eta jendea asko gustatzen zaio; harrututa gelditzen dira instrumentu tradizionalekin egin daitezkeen gauza berriak ikusita. Gero, abenduaren 30ean bandaren kontzertua egoten da eta lehen jotzen genuen geuk ere, urtero. Kantujiran ere jo izan dugu; kantu zaleen elkarte bat dago Arratia mailan, eta Areatzan kantu poteo bat egin izan denean Areatzan hartu izan dugu parte. Hainbat gauzatarako hartzen gaituzte kontuan, inoiz ez dira gutaz ahazten.

Aurtengo jaietan txupina bota duzue. Nolako izan zen esperientzia?

Oso esperientzia polita izan da. Datorren urtean ere txupinera nahiko dugu izan [barrez]. Txupinera paperean sartu ginen %100ean. Lehenengo eta azkeneko egunean paparrean banda

bat jarrita ibili ginen, kamiseta beltz bat eta painelu more bat ere prestatu genituen, baita Areatzako txistulariak zioen txapa bat ere... Geure buruari egindako omenaldia izan zen. Jendeak ez dakigu zer pentsatu zuen, baina guretzat oso gauza hunkigarria izan zen. Oso serio hartu genuen. Azken egunean jaiak agurtzea ere egokitu zitzaigun, eta hori zelan egin pentsatzen egon ginen udan. Hasteko, kalejiratxo bat egin genuen hileta-martxa batekin; ondoren, agurra jo genuen eta dantzari bik dantzatu egin zuten; eta azkenean, gure ibilbidea laburtzen duen bertso bat kantatu genuen Habanera doinuarekin eta su artifizial batzuk bota genituen. Jendeak espero ez zuen amaiera izan zela uste dugu.

Jende berriarentzat atek zabalik dituzue?

Bai, noski. Baina egia da Areatzan musikazaleak izan arren, ez dagoela txistularien jarraipenik. 30 urte daramatzagu honetan eta ez daukagu harrobirik. Hasi ziren berri batzuk orain dela urte gutxi baina utzi zuten. Gurea kasu berezia izan da: 13-14 neska, adin antzekoa eta guztiok erdi batera hasi ginen. Asko izan garenez, jarraitu egin du, baina gutxiago bagina igual amaituta egongo zen. Holako beste kasurik egotea zaila da horrelako herri txiki batean.

Zein da txistu taldearen etorkizuna?

Momentu honetan gauden bezala jarraitzea, ekitaldietan parte hartzen eta abar. Txistua uztea ez zaigu burutik ere pasatzen. Denok elkartu eta kalejira eta kontzertu bereziak jotzeko prest gaude; esango dugu noiz arte baina aurrera goaz.

“TOCAMOS EL TXISTU PARA QUE NO FALTE LA MÚSICA EN AREATZA, PERO TAMBIÉN POR NOSOTRAS MISMAS”

El grupo de txistularis de Areatza está formado por mujeres en su totalidad. Suelen tocar en muchos de los actos que se celebran en el pueblo. Este año, además, han sido las encargadas del chupinazo, y lo han hecho “muy emocionadas”. Hemos entrevistado a algunas de ellas.

¿Cuántas personas formáis el grupo?

En este momento, nueve. Antes éramos más, pero ahora somos nueve las que solemos tocar en distintos actos, aunque no siempre nos juntamos todas.

Soléis tocar en numerosos actos.

Sí. En fiestas, el día de Santi Kurutze, el Día del Euskera, cuando viene Olentzero... Normalmente siempre solemos estar dispuestas cuando nos llaman.

¿Todo voluntariamente?

Normalmente sí. El ayuntamiento nos suele ofrecer una cena pero no solemos aprovechar la oferta [entre risas]. Tocamos el txistu para aportar nuestro granito de arena, para que no falte música en el pueblo, pero también por nosotras. Sería una pena dejarlo; tocar en la calle nos hace sentir txistularis. Nos solemos juntar y suele ser bonito. Antes, cuando tocábamos en el pasacalles de los domingos, cobrábamos algo de dinero del ayuntamiento.

¿Cómo era eso de los domingos?

En Areatza había una tradición de tocar el txistu los domingos a las 09:30. Fueron Leonardo Zuloaga y Ramon Orue los que empezaron con ello, sería en la época de la dictadura, cuando estaba prohibido tocar y cantar canciones en euskera. Después, varias muchachas de Areatza aprendimos a tocar el txistu en Arratiako Musika Eskola. Todas éramos de edades parecidas, y empezamos a tomar parte en el pasacalles. Cuando Orue y Zuloaga dejaron de tocar los domingos, seguimos nosotras hasta que lo dejamos definitivamente hace seis años.

Entonces lo hicisteis durante muchos años...

Sí, empezamos con 9 o 10 años, lo hicimos durante la infancia, la adolescencia y la juventud, muchas veces con aje o “gaupasa”. Solíamos cobrar 300 pesetas por domingo. Después, cuando empezamos a ser madres, dejamos de tocar, aunque antes de hacerlo empezamos a guardar el dinero que nos daba el ayunta-

miento para hacer un viaje; al final, algunas chicas del grupo nos fuimos a México.

Se nota que lo pasasteis bien.

Somos de cuadrillas diferentes, pero el grupo de las txistularis es otra cuadrilla para nosotras. Hemos hecho muchas excursiones juntas: nos fuimos a Fuengirola (Málaga) a una feria de turismo durante cinco años. No cobrábamos un duro, pero solíamos pasar varios días de sol y fiesta. También nos fuimos a Francia y a Cataluña con la Arratiako Musika Eskola. Además, están en nuestra memoria otros actos como cuando íbamos a Lemoa en las fiestas de San Ignacio, cuando tocamos en el encuentro de los txistularis de Zornotza o cuando fuimos a la fiesta de la Korrika a Bilbao; ¡qué bien lo pasamos!

En cuanto a otros grupos de música de Areatza y alrededores, ¿soléis tocar juntos en alguna ocasión?

En fiestas solemos ofrecer un concierto especial con las guitarras de Eskean Kristö y metales de la Banda de Areatza: canciones de Gatiibu, Barricada, EH Sukarra... A la gente le suele gustar mucho. Antes, el 30 de diciembre solíamos tocar con la banda. También hemos participado en la Kantujira. Nos suelen llamar en numerosas ocasiones, no suelen olvidarse de nosotras.

En las fiestas de este año habéis sido las txupineras. ¿Qué tal la experiencia?

Ha sido una bonita experiencia. El año que viene queremos repetirlo [entre risas]. Nos metimos en el papel totalmente: el primer y el último día de las fiestas vestimos una banda, también hicimos camisetas negras, pañuelos morados y una chapa que ponía “Areatzako txistulariak”. Para nosotras fue muy emocionante. El último día nos tocó cerrar las fiestas: hicimos un pasacalles con una marcha fúnebre; después, tocamos el “Agurra” acompañadas de dos dantzaris; y para finalizar, cantamos un bertso para después echar fuegos artificiales. Creemos que fue un final diferente a lo que la gente esperaba.

¿Qué tiene que hacer un/a txistulari que quiere unirse a vosotras?

Comentarlo con nosotras. Pero, aunque a los/as de Areatza nos gusta mucho la música, no tenemos cantera de txistularis. Y, es que, nuestro caso es especial: 13-14 chicas de edades parecidas que empezamos casi al mismo tiempo a tocar el txistu. Como hemos sido muchas, hemos seguido con el grupo, pero si fuéramos menos, igual ya seríamos historia. Es difícil que haya otro caso como el nuestro en un pueblo tan pequeño.

¿Cuál es el futuro del grupo?

Seguir como estamos, participando en distintos actos. No nos pasa por la cabeza dejar el txistu. Estamos dispuestas a seguir tocando en conciertos y pasacalles. Ya diremos hasta cuando, pero vamos a seguir con esto.





EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA GELDITZEKO ESKATU DA BESTE BEHIN ERE

Azaroaren 25aren harira, emakumeenganako indarkeriari ezetz esateko hainbat ekintza egin dira aurten ere Arratian eta Areatzan, azaroaren 15ean hasi eta abenduaren 5era bitartean, Arratiako Jabekuntza Eskolak antolatuta. Eskualde mailan egin ziren manifestazioa, poteo feminista, ikastaroak, tailerra eta liburu aurkezpena, besteak beste.

Abenduaren 5ean, Areatzan, "Él nunca me pegó" film laburra ikusi eta egilearekin, Irantzu Varela kazetariarekin, solasaldia izateko aukera ederra egon zen. Adin ezberdinetako hainbat emakume elkartu ziren udal aretoan. Filmak biolentzia psikologikoaren gaia jorratzen du, eta hortik ihes egiteko proposamen bat egiten du: feminismoa. Ostean, hizketaldian, film laburra zelan eta zergatik egin zuen azaldu ziren hain bildutakoei, eta ikus-entzuleek ere beraien ekarpenak egiteko aukera eduki zuten.

Horrez gain, Areatzako Eskolan ere egin ziren ekimen batzuk, besteak beste, horma-irudi bat.

SE HAN HECHO VARIOS ACTOS PARA DENUNCIAR LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

Se han llevado numerosos actos en torno al 25 de Noviembre tanto en Arratia como en Areatza, para decir no, una vez más, a la violencia contra las mujeres.

En Areatza, el 5 de diciembre, se pudo ver el cortometraje "El nunca me pegó", de Irantzu Varela. La película trata el tema de la violencia psicológica, y propone el feminismo como vía de escape. Después de la película, se organizó un coloquio para hablar con Varela.

Además, los/as alumnos/as de la Escuela de Areatza también hicieron algunos actos, entre otros, un mural.

A nivel comarcal, tuvieron lugar una manifestación, un poteo feminista, unos cursillos, un taller y una presentación de libro, entre otros.

AREATZAKO EMAKUMEEN FOROAK ZIKLO BAT BUKATUTZAT EMAN DU

Areatzako Emakumeen Foroa 2007. urtean sortu zen. Areatzako I. Berdintasun Planaren ondorioz sortu ere. Bere sorreran Areatzako elkarte guztiak eta gai horretan interesatuta zeudenak gonbidatu ziren foroan parte hartzeko. Denborarekin, Foroa bere nortasun propioa hartzen joan da eta parte-hartzaileok pertsonalki eta ez talde baten izenean jardun dugu lanean. Azken 10 urte hauetan Foroan parte hartu dugun emakumeok elkartu gaituen helburua hau izan da: aukera berdintasunak bultzatzea, emakumeen kolektiboa ikusaraztea eta eskubideen alde lan egitea, feminismoa ezagutaraztea eta feminismoan sakontzea.

Urteotan hainbat ekintza antolatu ditugu, bai Areatzan eta bai Arratia mailan: Nazioarteko egunen kanpainak (azaroak 25, martxoak 8, ekainak 19) literatur tertuliak, dokumentalak eta debateak, Feminismoari buruzko formazioa Marcela Lagarderekin, coaching ikastaroa, "Areatzako emakumeen memoria" dokumentala, abortuaren aldeko kanpainak, Emakume Mundu Martxan parte hartu, herriko hainbat batzordetan parte hartu, Foroko Facebookeko informazioa elikatu...

Andreontzako lokala lortu genuen, gure espazio propioa edukitzea beharrezkoa delako alde praktikoan eta sinbolikoan. Horregatik Emakumeen gela dena aurrerantzean ere emakumeen interes eta beharrezkoak izatea eskatzen dogu.

Lan handia egin dugu eta hainbat gauza lortu dira horri esker. Gauza bi aipatzekoak lortutako helburuen artean:

Alde batetik, Arratia mailan feminismoaren inguruan sare bat sortzen lagundu dugu. Eta hau oso garrantzitsua da Arratian ekintzak koordinatzeko, antolatuta egoteko eta batez ere sareari esker Arratian feminismoak presentzia handiagoa duelako.

Bestalde, Arratiako Jabekuntza Eskola sortzea lortu da. Orain dela urte batzuk hau amets bat besterik ez zen; orain, berriz, Areatzako Emakume Foroak, Arratiako beste emakume taldeek eta Mankomunitateko teknikariak egindako lanari esker, eskola hau errealitate bihurtu dugu.

Maila pertsonalean ere forokidea izatea sano aberasgarria izan da bai formazio aldetik baita geure artean eta beste herrietako andreekin egin ditugun harre-

manengatik. Jabekuntza indibidualetik jabekuntza kolektiborantz goaz, eta horixe dela bide egokia uste dugu.

Gaur egun, neurri batean, Foroak egiten zuen lana Arratiako Jabekuntza Eskolak, Areatzako Udaleko Berdintasun zinegotziak eta Mankomunitateko teknikariak egiten dute eta hausnarketaren ondorioz bide berriak hartu behar ditugula erabaki dugu.

Feminismoaren alde lan egiten jarraituko dugu beti, baina Foroaren ibilbidea amaitutzat ematen dugu.

Aurrerapauso handiak eman dira azken urte hauetan, baina oraindik lan eskerga dago egiteko; horregatik, Areatzako eta Arratiako herritarroei dei egiten dizuegu gizarte honetako andreenganako diskriminazio eta biolentziaren kontrako borrokan jarraitzeko eta matxismoari aurre egiteko, patriarkatua deuseztatzeko bide luzea daukagu oraindik eta.

Eskerririk asko Areatzako Emakumeen Foroak egin duen ibilbide honetan zuen babesa eta konfiantza erakutsi diguzuen guztioi!

EL FORO DE MUJERES DE AREATZA DA POR FINALIZADO UN CICLO

El Foro de Mujeres de Areatza nació en 2007 como consecuencia de la aprobación del I. Plan de Igualdad de Areatza. En su nacimiento se invitó a todas las asociaciones y a las personas interesadas en este tema a participar en el foro.

Con el tiempo el foro fue adquiriendo personalidad propia y las participantes trabajaban por iniciativa propia y no en representación de grupo alguno. En estos últimos 10 años, a las mujeres que participamos en el Foro nos ha unido un objetivo común: impulsar la igualdad de oportunidades, a visibilización de las mujeres y la defensa de sus derechos, dar a conocer y, a la vez, profundizar en el feminismo.

En estos años se han organizado muchas actividades, tanto en Areatza como a nivel de Arratia: campañas internacionales (25 de noviembre, 8 de marzo, 19 de junio...), tertulias literarias, documentales y debates, formación sobre feminismo con Marcela Lagarde, curso de coaching, el documental "Areatzako emakumeen memoria", campañas a favor del aborto, participación en la Marcha Mundial de las Mujeres, se ha participado en comisiones del pueblo, se ha creado y alimentado la información de

la página de Facebook del Foro...

Conseguimos un local para mujeres, porque es importante y necesario tener un espacio propio tanto por su valor práctico como simbólico. Por eso pedimos que a partir de ahora la Emakumeen gela sea para las necesidades y el interés de las mujeres.

Hemos hecho un gran trabajo, gracias al cual se han conseguido muchas cosas. Entre los objetivos logrados, podemos mencionar los siguientes:

Por un lado, hemos ayudado a crear una red feminista a nivel de Arratia. Esto es muy importante para coordinar las acciones que se hacen en Arratia, para estar organizadas y, sobre todo porque, gracias a ello, el feminismo tiene más presencia en Arratia.

Por otro lado, se ha conseguido crear la Escuela de Empoderamiento de Mujeres de Arratia. Hasta hace unos años era solo un sueño, pero ahora, gracias al trabajo del Foro de Mujeres de Areatza, otras asociaciones de mujeres de Arratia y el personal técnico de Igualdad de la Mancomunidad, esta escuela es hoy en día una realidad.

A nivel personal, participar en el foro ha sido muy enriquecedor, tanto por la formación, como por las relaciones que hemos hecho en el foro y con otras mujeres de Arratia. Evolucionamos de un empoderamiento individual a un empoderamiento colectivo y este, creemos, es el camino para lograrlo.

Hoy en día, en cierta medida, la labor que se ha ido haciendo por el Foro, se sigue haciendo por la concejalía de Igualdad del Ayuntamiento de Areatza y por el personal técnico de Igualdad de la Mancomunidad y, después de un proceso de reflexión, hemos decidido que debemos tomar otros caminos.

Siempre seguiremos trabajando por el feminismo, pero damos por finalizado nuestro camino en el Foro.

Se han dado grandes avances en los últimos años, pero todavía hay mucho que conseguir; por eso hacemos un llamamiento a la población de Areatza y Arratia para que sigamos luchando contra la discriminación de las mujeres, contra la violencia y contra el machismo. Todavía hay mucho trabajo hasta que logremos anular el patriarcado.

¡Muchas gracias a todos y todas las que habéis apoyado y confiado en el Foro de Mujeres de Areatza!



EUSKARAREN EGUNA OSPATU DUTE HERRITARREK

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta beste leku batzuetan bezala Areatzan ere egitarau osatua prestatu zuen Euskara Batzordeak egun horretarako ez ezik, baita aurreko ostiralerako ere.

Hala, ostiralean, abenduaren 1ean, eman zitzaion hasiera egitarauari, Ana Apika ipuin kontalaria etorri baitzen gurera, eta emanaldia eskaini zien familiei eta 4 urtetik aurrerako haurrei, Ipuin sorta izenburupean. Ondoren, Guraso Elkarteak txokolate beroa eskaini zuen plazan.

Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, eguna Txistularien Taldearen kalejirarekin hasi zen, eta ondoren Euskera plazara atera ekimenaren tarte izan zen. Hala, 40 herritarrek baino gehiagok Joseba Sarrionandiaren hainbat testu irakurri zituzten udal-txe barrutik; izan zen norberak idatzitako edo aukeratutako testurik ekarri zuen herritarrik ere. Megafoniari esker, kalean entzun izan ahal genituen idatziok. Bi orduko saioa izan zen, eta hainbat herritar gerturatu ziren pasarte txikiak irakurtzera; azken testua Bernardo Atxagaren Minutu bateko manifestua testua izan zen. Ondoren, Areatzako bertsolari gazteek bertsoa bota zuten udaletxeko balkoitik.

Aldi berean, haurrentzako tailerrak antolatu ziren ludotekan. Herriko gazteenek euskararen erabileraren gaineko mural handi bat egin zuten, eta amaieran plazan zintzilikatu zen.

LOS/AS VECINOS/AS HAN CELEBRADO EL DÍA DEL EUSKERA

La Comisión de Euskera de Areatza organizó distintos actos en torno al Día Internacional del Euskera.

El 1 de diciembre, viernes, se organizó un encuentro con la narradora de cuentos Ana Apika, para escuchar "Ipuin Sorta", y después, la Guraso Elkarte ofreció chocolate caliente en la plaza. En el Día Internacional del Euskera, el 3 de diciembre, el día comenzó con el pasacalles de las txistularis. Le siguió el acto "Euskera plazara atera", donde más de 40 vecinos/as leyeron varios textos de Joseba Sarrionandia desde el ayuntamiento; gracias a los altavoces, se pudo escuchar desde la plaza. La lectura duró dos horas, y lo cerró la obra "Minutu bateko manifestua" de Bernardo Atxaga. Después, los/as bertsolaris jóvenes de Areatza cantaron un bertso desde el balcón.

Al mismo tiempo, los/as más pequeños/as tomaron parte en los talleres que se organizaron en la ludoteca: hicieron un gran mural, y se colgó en la plaza.



Kanta kantari gabiltzala

Aberria aipagai hainbatetan

Aberri gotorra, idorra, mugarridun lurretan.

Aitaren etxea.

Neuk ere poeta handia izan nahi nuke nire aberriari kantatzeko, aita, ama eta seme-alaben etxeari.

Nire aberri hortan baso aberatsak eta hesirik gabeko landa zabalak daude eta edonondik ibilteko aukera dugu.

Bertan ez dago exiliatu sexualik, ez ekonomikorik, ez politikorik eta kanpoko inor ez da ilegala.

Bertan ez dago generorik, ez arrazakeririk eta boterea banatzeko aukera dugu.

Bertan ez dago etxe bakorik, ez langaberik eta justiziarako aukera ere badugu.

Eta nire aberrian euskara aukeratzen duenak euskaraz bizitzeko aukera izango luke

Kanpotik eta barrutik, egunerokoan eta noizbehinkakoetan.

Euskaraz garatzeko eta hazteko bidea aurkituko luke hala nahi lukeenak.

Halaber, besteen parean sentituko luke bere burua euskaldunak inperioen hizkuntzak erabiltzean

Eta gaztelera eta frantsesaren hiztunek errespeto eta miresmenegiz begiratu lioke

hizkuntza txiki eta minorizatu horren aukera egitearren, eskertu ere egingo lioke

munduan diren milaka hiztun gutxiak hizkuntzen altxorra gordetzen eta babesten laguntzearren.

Horrela, harro legoke euskalduna bereaz

eta ez litzateke bakarra sentituko,

hizkuntza-aniztasuneko kaxa ekologikoan milioika gizaki izango bailuke alboan.

Koloretsua eta Kolore bizikoa gura dut-eta nik aberria.

Ez pentsa, jakin badakit nire aberriak izanik gabeko presentzia daukala gure artean

eta kantatu egingo diot poeta handia egiten naizenean.

Maite Artabe Urkiri

GALDEKETAKO PARTE HARTZEAREKIN POZIK AGERTU DA DAGIGUN AREATZA

Azaroaren 5eko herri galdeketa parte-hartzearekin oso pozik daude Areatzako Dagigun Elkarteko kideak. 16 urtetik gorako 1.021 pertsonen eduki zuten boto eskubidea, eta horietatik 463 joan ziren hautestontzietara, hau da, %45,35. "Euskal estatu burujabe baten hiritarra izan gure duzu?" galderari baietz erantzun zion gehiengo handi batek, %90,28k hain zuzen ere.

"Ia %46ko parte-hartzea datu ona da Areatzarako", esan dute Dagiguneko kideek. Parte hartzeari dagokion datuaz gain, giroa ere ona izan zen herrian, ez baitzen arazorik suertatu eta egun osoko egitaraua antolatua baitzegoen. Hala, goizean kate eta kalejira eginez hasi zuten eguna herritarrek, eta beste herri batzuetatik etorritako lagunekin batera. Bozketako lekua Bekokalen kokatu zen eta plazan, berriz, taloak jateko txosna jarri zuten. Musikaz gain, eguerdian bazkari popularra eta, ondoren, dantza ikuskizuna eta Areatzako BatucAKKB taldearen emanaldiarekin gozatu ahal izan zuten. Eguna amaitzeko boto kontaketari ekin zioten eta emaitzak han bertaratutako artean jakinarazi zituzten.

Horrenbestez, Dagigun Areatza elkarteko kideak pozik agertu dira azaroaren 5eko emaitzeekin, baina erabakitze eskubidea galdeketa baino askoz harago doala uste du elkartek. Horrenbestez, hemendik aurrera ere, elkartek lanean jarraituko du; ez da desegingo. Hitzaldiak, tailerrak eta Katalunia edota Eskoziako esperientziak partekatze espazioak sortzen egingo du lan, besteak beste.

LA ASOCIACIÓN DAGIGUN AREATZA SE MUESTRA SATISFECHA CON LA PARTICIPACIÓN DE LA CONSULTA

La asociación Dagigun Areatza se ha mostrado satisfecha con la participación de la consulta del 5 de noviembre. En total fueron 463 personas las que se acercaron a las urnas, es decir, el 45,35% de las 1.021 personas mayores de 16 años que estaban llamadas a participar. "¿Desea ser ciudadano ó ciudadana de un estado vasco soberano?" era la pregunta acordada, y el 90,28% votó que "sí".

Además del dato de la participación, también hay que resaltar que el municipio vivió una jornada con buen ambiente y actividades programadas para todo el día, comenzando con una kalejira; durante la mañana se instaló una txosna en la plaza, y después de la comida popular pudo disfrutarse de un espectáculo de danzas y la actuación de BatucAKKB. El día culminó con la revelación de los resultados de la consulta ante las personas congregadas en la lonja habilitada para votar.

Es por ello que la mencionada asociación se muestra satisfecha; a partir de ahora la asociación seguirá trabajando en torno al derecho a decidir, organizando charlas, talleres, o espacios donde compartir experiencias como las que se han vivido en Escocia o Cataluña.



Udalak MAPA TOPONIMIKOA EGITEKO KONTRATUA EGIN DU

Aurreko hilabeteetan Labayru Fundazioak Areatza inguruko leku izenak batu ditu, eta horretarako hainbat herritarrekin bilerak egin ditu. Hala, galtzearekin zenbait leku izen batzea eta dokumentatzea nahi izan du Areatzako Udalak, eta horretarako herritarren kolaborazioa izan du. Lan horren aurkezpena Gabonetako egitarauaren barruan egitea aurreikusi da.

Lan hori bukatu ondoren, orain jasotako hainbat toponimo udalerriko mapetan jartzeko kontratua egin du Udalak Geograma enpresarekin. Zortzi hileko lana izango da, eta 6.715 euroko kontratua da. Eusko Jaurlaritzak horretarako diru-laguntza eman dio Udalari, hain zuzen ere 4.440 eurokoa, eta, hortaz, Udalak berak 2.275 euro jarri beharko ditu. Hala, aurreko fasean jasotako lekuen izenak mapetan jarriko dira.

EL AYUNTAMIENTO HA CONTRATADO LA REALIZACIÓN DE UN MAPA TOPONÍMICO

La Fundación Labayru ha estado reuniendo nombres de lugares de Areatza y alrededores, y para ello, se ha reunido con muchos/as vecinos/as. El objetivo del Ayuntamiento de Areatza ha sido reunir y documentar nombres que estaban a punto de desaparecer. El trabajo se presentará en Navidades.

Ahora, el ayuntamiento ha contratado a la empresa Geograma para que realice la tarea de colocar en los mapas municipales los topónimos reunidos en la fase anterior. El trabajo se realizará en un periodo ocho meses y tendrá un coste de 6.715 euros. El Gobierno Vasco subvencionará el proyecto con una cuantía de 4.440 euros, y el monto restante correrá a cargo del ayuntamiento.

GABONETAN, HERRITARREK EGITARAU OPAROA DUTE ZAIN AREATZAN

Aurten ere egitarau osatua izango dute Areatzako herritarrek herrian bertan, eta programazioan denetarik aurkituko dute, kirola, musika, hitzaldiak zein magia. Adin guztietarako herritarrentzako egitaraua da, eta elkarrekin zein Udalak elkarlanean antolatu dute.

Hasteko, abenduaren 22an AKKB Taldeak irteera egingo du Bilboko Euskalduna Jauregira, BOS eta Bilboko Koral Elkartearen Gabonetako kontzertua ikusteko. Hilaren 24an, berriz, Guraso Elkarteak haurrentzako tailerrak antolatuko ditu goizean, eta arratsaldean Olentzeroren etorrera izango da, ohi bezala.

Hilaren 27an, berriz, Tor Magoaren txanda izango da goizean, eta iluntzean Coro Rossini abesbatzak Gabon kantak kontzertua eskainiko du elizan; ondoren mokadutxoa eskainiko da denentzat, AKKBk antolatuta.

Ostegunean, berriz, Udalak bideratutako toponimia lanaren aurkezpena eskainiko da udaletxean, eta ostiralean, hilaren 29an, kirolaren txanda izango da: frontoian haur zein nagusien eskupilota txapelketaz gozatu ahalko da, Areatzako Eskupelota Elkartearekin batera antolatuta. Ondoren, Eresöinka taldearen kalejira izango da tabernaz taberna.

Abenduaren 30ean ohikoa den Areatzako Bandaren kontzertua izango da elizan, eta 31n Lamino Mendi Taldeak mendi irteera antolatu du Siskiño eta Oketara. Bukatzeko, urtarrilaren 4an Iñaki Perurenak helduentzako Harria. Maitasun istorioa kontakizun eta erakustaldia eskainiko ditu udaletxean.

UNA PROGRAMACIÓN COMPLETA PARA DISFRUTAR DE LAS NAVIDADES

Los/as vecinos/as de Areatza van a poder disfrutar de una programación completa durante las Navidades, ya que podrán acudir a citas deportivas, musicales o culturales. Se trata de una programación pensada para todas las edades, y ha sido organizada tanto por el ayuntamiento como por las asociaciones locales.

Para empezar, el día 22 AKKB ofrecerá una excursión al Palacio Euskalduna de Bilbao, para ver el concierto de BOS y Sociedad Coral de Bilbao. El día 24, por otro lado, los/as más pequeños/as van a poder disfrutar de sendos talleres por la mañana, y de la llegada de Olentzero por la tarde.

El 27 de diciembre, por la mañana, se podrá disfrutar de la actuación del mago Tor, y por la tarde el Coro Rossini actuará en la iglesia. A continuación se servirá un pequeño lunch de la mano de AKKB.

El día 28 se presentará el proyecto toponímico realizado por Labayru, y el viernes, 29 de diciembre, será el turno del campeonato de eskupelota en el frontón. Después, Eresöinka animará el ambiente con su música.

Areatzako Banda no fallará en su cita anual y del día 30 ofrecerá un concierto en la iglesia., El día 31 se podrá participar en la salida de montaña a Siskiño y Oketa, de la mano de Lamino Mendi Taldea. Por último, el día 4 de enero, Iñaki Perurena ofrecerá una charla y una exhibición para adultos/as en el ayuntamiento.

areatza
lantzen



Areatzako Uda-



@areatzako_Uda-